

**FRIEDRICH HÖLDERLIN (1779-1843): OLERKIAK  
(ITZULTZAILE: LUIS AROSTEGI)**

**Der Adler**

Mein Vater ist gewandert, auf dem Gotthard,  
 Da wo die Flüsse, hinab,  
 Wohl nach Hetruria seitwärts,  
 Und des geraden Weges  
 Auch über den Schnee,  
 Zu dem Olympos und Hämos  
 Wo den Schatten der Athos wirk,  
 Nach Höhlen in Lemnos.  
 Anfänglich aber sind  
 Aus Wäldern des Indus  
 Starkduftenden  
 Die Eltern gekommen.  
 Der Urahn aber  
 Ist geflogen über der See  
 Scharfsinnend, und es wunderte sich  
 Des Königes goldnes Haupt  
 Ob dem Geheimniß der Wasser,  
 Als roth die Wolken dampften  
 Über dem Schiff und die Thiere stumm  
 Einander schauend  
 Der Speise gedachten, aber  
 Es stehen die Berge doch still,  
 Wo wollen wir bleiben?

## Arranoa

Nire aita joana da, Gotardo ganetik,  
ibaiak jasten diran aldetik,  
bai Etruria-ra saieska,  
eta bide zuzenez  
edur ganetik be bai,  
Olinpos eta Hemos-era  
Atos-ek geriza botaten dauanera,  
Lemos-ko arpetara.  
Asieran ostera  
Indus-ko oianetatik  
usain bizikoetatik  
ziran gurasoak etorri.  
Baina arbasoa  
itsas gain etorri zan egaz  
zoli asmatuz, eta arritu zan  
erregearen urrezko burua  
uren misterioaz,  
odeiek gorri lurrintzean  
itsasontzi ganean eta piztiak mutu  
bata besteari begira  
jatekoaz gogoratzean, baina  
baketsu dagoz mendiak,  
non geldituko gara?

**Stutgard.  
An Siegfried Schmidt.  
<Zweite Fassung>**

I.

Wieder ein Glük ist erlebt. Die gefährliche Dürre geneset,  
 Und die Schärfe des Lichts senget die Blüthe nicht mehr.  
 Offen steht jezt wieder ein Saal, und gesund ist der Garten,  
 Und von Reegen erfrischt rauschet das glänzende Thal,  
 Hoch von Gewächsen, es schwellen die Bäch' und alle gebundenen  
 Fittige wagen sich wieder ins Reich des Gesangs.  
 Voll ist die Luft von Fröhlichen jezt und die Stadt und der Hain ist,  
 Rings von zufriedenen Kindern des Himmels erfüllt.  
 Gerne begegnen sie sich, und irren untereinander,  
 Sorgenlos, und es scheint keines zu wenig, zu viel.  
 Denn so ordnet das Herz, es an, und zu athmen die Anmuth,  
 Sie, die geschikliche, schenkt ihnen ein göttlicher Geist.  
 Aber die Wanderer auch sind wohlgeleitet und haben  
 Kränze genug und Gesang, haben den heiligen Stab  
 Vollgeschmökt mit Trauben und Laub bei sich und der Fichte  
 Schatten; von Dorfe zu Dorf jauchzt es, von Tage zu Tag,  
 Und wie Wagen, bespannt mit freiem Wilde, so ziehn die  
 Berge voran und so träger und eilet der Pfad.

## **Stuttgart. Siegfried Schmidt-i <Bigarren egikera>**

I.

Barriz bizi dogu zoriona. Legorte galgarria osatuz doa,  
eta ez ditu argiaren gogorrak onezkero erreten lorak.  
Zabalik dago orain barriro aretoa, eta osasuntsu baratza,  
eta euriak barriztuta jori da ibar dizditsua,  
landaraz betean, andi datoz errekek eta egazti  
kokil guztiak barriz ausartzen abestiaren erreinura.  
Alaiz beterik dago eguratsa orain eta uria eta zugaztia,  
zeruaren ume poztunez beteta ingurumari.  
Pozik alkartzen dira eta aratona dabiltz alkarregaz,  
ardura barik, eta ezerk ez dirudi ez gitxiegi, ez larregi.  
Olan agintzen dau-eta biotzak, eta txairotasunaren arnasa,  
a, bizkorra, jainkozko espiritu batek damotse.  
Baina bidaztiak be ondo gidatuta doaz eta badauke  
koroirik naiko eta kanturik, makila sakratua dabe  
eurakaz mordoz eta orriz apaindua eta izaiaren  
geriza; erriz erri doa poz-oiua, egunik egun,  
eta basapiztiek eroandako zalpurdia irudi, dagie  
mendiek aurrera eta olan doa astiro eta bizkor bidea.

## 2.

Aber meinst du nun, es haben die Thore vergebens  
 Aufgethan und den Weg freudig die Götter gemacht?  
 Und es schenken umsonst zu des Gastmahls Fülle die Guten  
 Nebst dem Weine noch auch Blumen und Honig und Obst?  
 Schenken das purpurne Licht zu Festgesängen und kühl und  
 Ruhig zu tieferem Freundesgespräche die Nacht?  
 Hält ein Ernsteres dich, so spars dem Winter und willst du  
 Freien, habe Gedult, Freier beglücket der Mai.  
 Jezt ist Anderes Noth, jezt komm' und feire des Herbstes  
 Alte Sitte, noch jezt blühet die Edle mit uns.  
 Eins nur gilt für den Tag, das Vaterland und des Opfers  
 Festlicher Flamme wirft jeder das Eigene zu.  
 Darum kränzt der gemeinsame Gott umsäuselnd das Haar uns,  
 Und den eigenen Sinn schmelzet, wie Perlen, der Wein.  
 Diß bedeutet der Tisch, der geehrte, wenn, wie die Bienen,  
 Rund um den Eichbaum, wir sizen und singen um ihn,  
 Diß der Pokale Klang, und darum zwinget die wilden  
 Seelen der streitenden Männer zusammen der Chor.

2.

Baina uste dozu orain alperrik dabezala atepak  
edegi eta bidea pozgarri egin espirtuek?  
Eta alperrik emoten ete dabez onberek oturuntza beterako  
ardaoz ganera lorak eta ezta eta igaliak?  
Alperrik emoten jai-kantetarako purpurazko argia eta  
adiskide autu sakonerako ozkirri eta baketsu gaua?  
Gauza ardurazkoagoak lotzen bazaitu, itzi negurako, eta ezkondu  
nai badozu, izan egonarri, maiatza jako zoriongarri ezkon-naiari.  
Orain beste bear da, orain zatoz eta ospatu udagoieneko  
oitura zaarra, oindino jori da gure artean bikaina.  
Bat bakarrik bear da gaur, aberria, eta eskeintza  
jai-sugarretara bakoitzak botaten dau berea.  
Orregaitik koroitzen deusku danen Jainkoak murmurrez ulea,  
eta urtuten gure gogoa, perlak lez, ardaoak.  
Au dino maaiak, agurgarriak, guk, erleak aritz biran lez,  
aren inguruan jesarri eta abesten dogunean,  
au edontzi otsak, eta orregaitik bultzatzen ditu alkartzera  
gizon auzkarien gogo sutuak abesbatzak.

## 3.

Aber damit uns nicht, gleich Allzuklugen, entfliehe  
 Diese neigende Zeit, komm' ich entgegen sogleich,  
 Bis an die Grenze des Lands, wo mir den lieben Geburtsort  
 Und die Insel des Stroms blaues Gewässer umfließt.  
 Seeligen lieb ist der Ort, an beiden Ufern, der Fels auch,  
 Der mit Gatten und Haus grün aus den Wellen sich hebt.  
 Dort begegnen wir uns; o gütiges Licht! wo zuerst mich  
 Deiner gestaltenden Stralen mich einer betraf.  
 Dort begann und beginnt das liebe Leben. Was ist es  
 Aber? des Vaters Grab sch' ich und weine dir schon?  
 Wein' und halt' und habe den Freund und höre das Wort, das  
 Einst mir in himndicher Kunst Leiden der Liebe geheilt.  
 Andres erwacht. Ich muß des Landes Blüten ihm nennen,  
 Barbarossa. Dich auch, gütiger Kristoph, und dich,  
 Konradin. So arm ist des Volks Mund. Aber der Epheu  
 Grünt am Fels und die Burg deckt das bacchantische Laub,  
 Und Vergangenes ist, und Künftiges fürstlich den Sängern.  
 Reich in Tagen des Herbsts sühnen die Schatten wir uns.

## 3.

Baina, lar zentzuzkoei lez, iges egin ez deigun  
aldi gainberakor onek, banator beingoan  
lurralde mugaraino, emen sorleku maitea  
eta ugarteia ibaiko ur urdinak inguratzen deustaz.  
Zorionekoei eder jake lekua, urbazter bietan, aitza be bai,  
baratz eta etxeagaz uinetatik berde jasoten dana.  
An aurkitzen dogu alkar; oi argi ontsua!, leenengoz  
zure dirdai moldatzaile batek jo ninduan lekuan.  
An asi zan eta asten da bizi maitea. Baina  
zer da?, aitaren ilobia ikusi eta negarrez nagotzu?  
Negar, eta gelditu eta adiskidea daukat eta abotsa entzuten,  
bein zeruko antzez maitasun minak osatu eustazan abotsa.  
Beste iratzarten da. Lurraldeko joria aipatu bear deustaz,  
Barbarossa. Zu be bai, Kristof onbera, eta zu,  
Konradin. Ain da erriaren aoa txiroa. Baina untzorria  
berde da aitzean eta gaztelua Bako-ren orriak dau estaltzen,  
eta joandakoa da, eta etortekoa, olerkarientzat leenengoa.  
Oparo damotsegu udazken egunetan gizazko ordaina itzalei.



## 4.

So der Gewaltgen gedenk und des ernstunmündigen Schiksaals,  
Schlank auch selber, und jung, aber vom lauterem Gott  
Auch gleich Rossen dahin, wie die Alten, die göttlicherzognen  
Dichter, heimischen Lichts, ziehen das Land wir hinauf.  
Wirtemberg ists. Dort von den uralt deutsamen Bergen  
Stammen der Jünglinge viel, steigen die Hügel herab.  
Quellen rauschen von dort und hundert geschafftige Bäche,  
Kommen bei Tag und Nacht nieder und biegen das Land.  
Aber der Meister pflügt die Mitte des Landes, die Furchen  
Ziehet der Nekarstrom ziehet den Seegen herab.  
Und es kommen mit ihm Italiens Lüfte, die See schickt  
Ungeheures, sie schickt krankende Sonnen mit ihm.  
Darum wächst fast über das Haupt wie Geistesgewalt uns  
Güterfülle, denn hier ward in die Ebne das Gut  
Reicher den Lieben gebracht, den Landesleuten, doch neidet  
Reiner an Bergen dort ihnen die Gärten, den Wein  
Oder das üppige Gras und das Korn und die glühenden Bäume,  
Die am Wege gereiht über den Wanderern stehn.

## 4.

Olan aaltsuak gogoan izanez eta patu benazko-adinbakoa, zegaztak geu be, eta gazte, baina Jainko aratzagandikoak, zaldien antzeko, ara goaz antzinakoak, jainkoz ezitako olerkariak lez, geure erriko argiaz, lurraldean gora. Wirtemberg da. An antzin-antzinako mendi esanaitsuetan sortzen dira gazte asko, muinoetatik datoz beera. Iturriak murmur leiatzen dira andik eta eun lats zeregintsu, datoz jatsiz gau ta egun eta lurra lantzen dabe. Baina maisuak lurralde erdian goldeatzen dau, ildoak ditu Neckar ibaiak ateraten, bedeinkapena erakarten. Eta aregaz Italia-ko aizeak datoz, itsasoak eskerga bialtzen dau, eguzki aulak bialtzen ditu aregaz. Olan azten jaku ia buru ganetik, espiritu indarra lez, ondasunen betea, ona ekarri jaken-eta, lau onetara ondasuna oparago maiteei, luginei, alan be ez deutsez inork an medietan bekaizten baratzak, ardaoa edo-ta bedar guria eta garaoa eta zugatz dizdikorrak, bide ondoan bidaztien ganetik lerrotuta dagozenak.

## 5.

Aber indeß wir schau'n und die mächtige Freude durchwandeln,  
Fliehet der Weg und der Tag uns, wie den Trunkenen, hin.  
Denn mit heiligem Laub umkränzt erhebet die Stadt schon  
Die gepriesene, dort leuchtend ihr priesterlich Haupt.  
Herrlich steht sie und hält den Rebenstab und die Tanne  
Hoch in die seeligen purpurnen Wolken empor.  
Sei uns hold! dem Gast und dem Sohn, o Fürstin der Heimath!  
Glückliches Stutgard, nimm freundlich den Fremdling mir auf!  
Immer hast du Gesang mit Flöten und Saiten gebilligt,  
Wie ich glaub' und des Lieds kindlich Geschwätz und der Mühn  
Süße Vergessenheit bei gegenwärtigem Geiste,  
Auch der Garten erfreut gütig des Fürsten das Herz.  
Aber ihr, ihr Tapfersten auch, ihr Froben, die allzeit  
Leben und walten, erkannt, oder gewaltiger auch,  
Wenn ihr wirket und schafft in heiliger Nacht und allein herrscht  
Und allmächtig empor zieht ein ahnendes Volk,

## 5.

Baina begiratzen eta poz anditan goazen bitartean,  
bideak iges dagisku eta egunak, mozkor baginan.  
Orri sakratuz koroituta jasoten bai dau uriak,  
goralduak, an argitsu bere apaiz-burua.  
Bikain dago eta maats-mordo aga jasoten dau eta izaia  
purpurazko odei doatsuetarantz gora.  
Adeibera zakiguz!, arrotzari eta semeari, oi jaioterriko leendakari!  
Stuttgard zorioneko, adiskide artu eidazu erbestekoa!  
Beti onartu dozu abestia txirulakaz eta zurda-soinuakaz,  
uste dodanez, eta kantuaren ume-erazko jarioa eta naigabeak  
gozaro aaztutea espiritua zoliaz,  
lorategiak be pozten dau onbera buruzagiaren biotza.  
Baina zuok, adoretsuenok be bai, alaiok, aldioro  
bizi eta jaurri dagizuenok, autortuak, edo aaltsuagoak be bai,  
gau sakratuan eragin eta sortzen dozuenean eta bakarrrik agintzen,  
eta guztialdun erri asmaria gora jasoten dozuenean,  
gazteak goiko arbasoez oroiu arte.  
Elduta eta argi dago zuen aurrean erri atsegingarria,

## 6.

Engel des Vaterlands! o ihr, vor denen das Auge,  
Sei's auch stark und das Knie bricht dem vereinzelt Mann,  
Daß er halten sich muß an die Freund' und bitten die Theuern,  
Daß sie tragen mit ihm all die beglückende Last,  
Habt, o Gütige, Dank für den und alle die Andern,  
Die mein Leben, mein Gut unter den Sterblichen sind.  
Aber die Nacht kommt! laß uns eilen, zu feiern das Herbstfest  
Heut noch! voll ist das Herz, aber das Leben ist kurz,  
Und was uns der himmlische Tag zu sagen geboten,  
Das zu nennen, mein Schmidt! reichen wir beide nicht aus.  
Trefliche bring' ich dir und das Freudenfeuer wird hoch auf  
Schlagen und heiliger soll sprechen das kühnere Wort.  
Siehe! da ist es rein! und des Gottes freundliche Gaaben  
Die wir theilen, sie sind zwischen den Liebenden nur.  
Anderes nicht – o kommt! o macht es wahr! denn allein ja  
Bin ich und niemand nimmt mir von der Stirne den Traum?  
Kommt und reicht, ihr Lieben, die Hand! das möge genug seyn,  
Aber die größere Lust sparen dem Enkel wir auf.

## 6.

aberriaren aingeruok!, oi zuok, zuen aurrean begia,  
 indartsua izan arren, eta belauna ausi egiten jakoz gizon bakartuari,  
 eta adiskideak bear ditu euskarri eta maiteei eskatu  
 beragaz ekar dagiela zama zoriongarri guztia,  
 izan, oi onberok, eskerrona aregaitik eta  
 ilkorren artean nire bizi, nire ondasun diran beste guztiakaitik.  
 Baina gaua dator!, goazen aguro udagoien jai  
 gaur berton ospatzen!, beterik biotza, laburra bizitza,  
 eta egun zerutarrak esateko guri agindua  
 izendatzeko, nire Schmidt!, ez gara gu biok naiko.  
 Errimeak dakartsudaz eta pozaren suak gora igongo dau  
 eta sakratuago da mintzatuko berba azarriagoa.  
 Aitu!, garbi da emen!, eta banatzen doguzan Jainkoaren  
 emoi adiskidezkoak, maite diranen artekoak dira bakarrik.  
 Ez besterik – oi zatoze!, oi egiazko egizue!, bakarrik nago  
 eta ez deust inork burutik ametsa kenduko?  
 Zatoze eta ekarri, lagunok, eskua!, izan bedi au naiko,  
 baina atsegin andiagoa lobeari izten deutsagu.

## An Zimmern

Von einem Menschen sag ich, wenn der ist gut  
Und weise was bedarf er? Ist irgend eins  
Das einer Seele gnüget? ist ein Haben, ist  
Eine gereifteste Reb' auf Erden

Gewachsen, die ihn nähre? Der Sinn ist deß  
Also. Ein Freund ist oft die Geliebte, viel  
Die Kunst. O Theurer, dir sag ich die Wahrheit.  
Dedalus Geist und des Walds ist deiner.

## Zimmer-i

*Gizon bat dala-ta, on eta zuurra danean,  
dinot nik, zer bear dau? Badago ezer  
arimea asetzekorik?, bada ondasunik,  
azi da lurrean maats onduenik*

*a janarituko dauanik? Arena da sena  
beraz. Adiskide bat da maite-emea sarri, asko  
ertia. Oi lagun, egia dinotsut.  
Dedalo-ren espiritua eta basoarena da zurea.*